ELGETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ELGETAKO UDALA
Eguna 2010 UZT. 23
Sarrera
Urteera -288-

## IRAGARKIA

Arauzko jendaurreko informazio epean izandako alegazioak erabaki ondoren, finko eta behin betikoa altxa da, Udal Bazarrak 2010eko uztailaren 13an hartutako erabakia: Ibilgaluen arautegia oinezko kaleetan onartzen duena eta hurrengo testua daukana.

### ELGETAKO HERRIAN, IBILGAILUENTZAKO ARAUTEGIA OINEZKOEN KALEETAN.

Elgetan 2010eko uztailaren 23an.

ALKATEA
Oxel Erostarbe

## ANUNCIO

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario, y contestadas las alegaciones formuladas, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo adoptado por el Pleno Municipal en sesión celebrada el dia 13 de julio de 2010, sobre el "Reglamento de vehículos para las alles peatonales" cuyo texto es del tenor siguiente:

### REGLAMENTO DE VEHICULOS PARA LAS CALLES PEATONALES EN EL MUNICIPIO DE ELGETA

Elgetan 2010eko uztailak 23.

Alkatea,
Oxel Erostarbe.

## ELGETAKO UDALA

*Iragarkia*

Arauzko jendaurreko informazio epean izandako alegazioak erabaki ondoren, finko eta behin betikoa altxa da, Udal Bazarrak 2010eko uztailaren 13an hartutako erabakia: Ibilgaluen arautegia oinezko kaleetan onartzen duena eta hurrengo testua daukana.

Elgetako herrian, ibilgailuentzako Arautegia oinezkoen kaleetan.

Elgeta, 2010eko uztailaren 23a.—Oxel Erostarbe, Alkatea.

(288) (8902)

*Ibilgailuentzako Arautegia oinezkoen kaleetan. 2010eko maiatzak 4ko Udalbatzarrak onartutakoa.*

Elgetako Udalak lau kale oinezkoentzat jarri ditu, hemendik aurrera kale horretan tráfiko araua berriak erabiliko dira, aldaketa honekin gura nahi duguna da herri barruan trafikoa murriztea, oinezkoen lasaitasuna, bizi kalitatea, zarata murriztea.

Hori ziurtatzeko helburuarekin egiten da arautegi hau.

### ARAUAK

1. Ondorengo kaleak oinezkoentzako izendatu dira:

a) Salbador, Lasao, Maala eta San Roke kaleak.

b) Espaloia Kafe Antzokirako bidea eta plazatxoa.

c) Gudarien bidea 6 eta 8 etxeen artean dagoen Torrealdearako pasabidea.

2. Debekatuta dago ibilgailuak oinezkoen kale hauetan ibiltzea, baimendutako egoeretan izan ezik.

3. Debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea oinezkoen kale hauetan.

4. Guztiz debekatuta dago oinezkonetzako izendatu diren kaleetan lau tona baino gehiagoko ibilgailuak ibiltzea eta aparkatzea, baimen bereziarekin izan ezik.

### BAIMENDUTAKO EGOERAK

1. Kaleotako bizilagunak, jabeak eta garajeetako erabiltzaileak:

1.1. Multzo honetan sartzen dira:

a) Salbador, Lasao, Maala edo San Roke kaleetan bizi direnak.

b) Salbador, Lasao, Maala eta San Roke kaleetako garaje edo baxuetako jabeak.

c) Ibilgailua kale hauetako garaje edo baxuren batetan gordetzen dutenak.

1.2. Egunerokotasunean sor litezkeen egoerak errazte aldera, bizilagun eta erabiltzaile hauek aukera daukate nor bere kalean ibilgailuaz sartzeko, honako kasuetan:

a) Ibilgailua garajean sartu edo bertatik ateratzeko.

b) Onezik dagoen edo mugikortasuna murriztuta duen pertsona bat etxe atarian jaso / uzteko.

c) Zamalanetarako (erosketa handiak, maletak).

1.3. Aurreko puntuko azken bi kasuetan, pertsona edo zama jaso / utzi ondoren, ibilgailua garajean sartu edo kaletik atera egin beharko da. Ezin izango da ibilgailua bertan aparkatuta utzi.

## AYUNTAMIENTO DE ELGETA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario, y contestadas las alegaciones formuladas, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo adoptado por el Pleno Municipal en sesión celebrada el dia 13 de julio de 2010, sobre el «Reglamento de vehículos para las alles peatonales» cuyo texto es del tenor siguiente:

Reglamento de vehículos para las calles peatonales en el Municipio de Elgeta.

Elgeta, a 23 de julio de 2010.—El Alcalde, Oxel Erostarbe.

(288) (8902)

*Normativa para vehículos en las calles peatonales. Aprobado por el Pleno el 4 de mayo de 2010.*

El Ayuntamiento de Elgeta ha dado prioridad a los peatones en cuatro calles, en adelante en las referidas calles se aplicarán nuevas normas de tráfico. Con esta modificación lo que pretende el Ayuntamiento en evitar el tráfico, mejorar la seguridad de los peatones, mejorar la calidad de vida y evitar ruidos.

Para garantizar los objetivos, se h aprobado la siguiente normativa:

### NORMAS

1. Las siguientes calles son peatonales:

a) Salbador, Lasao Maala y San Roke.

b) Acceso a Espaloia Kafe Antzokia y la plazoleta.

c) Paso a Torrealdea entre Gudarien Bidea 6 y 8.

2. Está prohibido circular por estas calles peatonales salvo los vehículos que tengan permiso.

3. Esta prohibido aparcar en estas calles.

4. Los vehículos de más de 4 toneladas tienen prohibido circular y aparcar en las estas calles, excepto con permiso especial.

### AUTORIZACIONES

1. Los que vivan en las calles peatonales y propietarios o usuarios de los garajes.

1.1. En este grupo se incluyen:

a) Los que viven en las calles Salbador, Lasao, Maala o San Roke.

b) Los propietarios de los garajes y bajos en las calles Salbador, Lasao, Maala y San Roke.

c) Los usuarios de los bajos o garajes de las calles Salbador, Lasao, Maala y San Roke.

1.2. Para facilitar la rutina diaria de los vecinos y usuarios de estas calles peatonales tendrán la oportunidad de entrar con su vehículo en la calle en los siguientes casos:

a) Para meter o sacar el vehículo del garaje.

b) Para recoger o dejar a personas discapacitadas o enfermas.

c) Para carga y descarga (maletas, objetos voluminosos).

1.3. En los dos últimos casos del punto anterior, después de recoger o dejar la persona o los objetos, el vehículo se meterá en el garaje o se sacará de la calle. Está prohibido aparcarlo en la calle.

1.4. Eskuzko itxitura duten kaleetan, erabiltzaile berak kenduko du itxitura, eta ibilgailua pasa ondoren, berriro itxitura jarrita utzi beharko du (kalea itxita).

1.5. Itxitura automatizatua daukaten kaleetan, bertako bizilagun eta jabeek urrutiko mandoa eskuratu ahal izango dute, «Mandoen banaketa» atalean zehazten den moduan.

1.6. Edonola ere, oinezkoen kale batetan ibilgailua sartzea, soilik premiazkoa denean eta zentzuz jokatuta egin beharko da, ibilgailuen joan-etorria ahalik eta gehien murrizteko.

1.7. Zamalan handietan, lau tona baino gehiagoko ibilgailua erabili behar bada, baimen berezia eskatu beharko da udaletxean, puntu honetako 6. atalean zehazten den moduan.

2. Merkataritza eta bestelako lan lekuak:

2.1. Salbador, Lasao, Maala eta San Roke kaleetako negozioetarako (saltoki, ostalaritza eta bestelako lan lekuetarako), eta Espaloia Kafe Antzokirako, baimendutako egoera hauek aurreikusten dira:

a) Ohiko horniketak (zamalanak).

b) Saltoki bateko bezeroak ibilgailua saltokiraino gerturatu ahal izatea erosketa handiak jasotzeko.

Bakarrik erosketak jasotzeko sartu ahal izango da ibilgailua. Erosketa egin bitartean, ibilgailuak ezin izango du oinezkoen kalean egon.

Edonola ere, saltzaile zein erosleak zentzuz neurtu beharko dute zein egoeratan dagoen nahikoa justifikatuta ibilgailua oinezkoen gunean sartzea.

c) Espaloia Kafe Antzokian antolatutako ikuskizunetako zamalanak.

2.2. Eskuzko itxitura duten kaleetan, zama hartu edo uzteko ibilgailua sartzen duenak, irtendakoan itxitura jarrita utzi beharko du (kalea itxita). Horniketen kasuan, itxitura jarrita gera dadin azken ardura bertako negozioarena izango da (bertako saltoki, ostatu, edo bestelakoa).

2.3. Itxitura automatizatua daukaten kaleetan, bertako negozioetako titularrek urrutiko mandoa eskuratu ahal izango dute:

a) Udalak negozio bakoitzeko titularrari mando bana utziko dio doan.

b) Negozioko titularrak urrutiko mando gehiago eskuratu ahal izango ditu udaletxean, bere ohiko hornitzaileei uzteko, «Mandoen banaketa» atalean zehazten den moduan.

c) Erosleak bere erosketak jasotzeko ibilgailua hurbildu nahi duenean, saltokiko titularrak utziko dio bere mandoa.

2.4. Zerbitzua ematen duena lau tona baino gehiagoko ibilgailua baldin bada, baimen berezia eskatu beharko da udaletxean.

3. Sendagilearengana etortzea.

3.1. Onezik dauden edo euren kabuz oinez etortzeko zailtasunak dituzten herritarrek, baimena dute sendagilearengana autoz etortzeko, kontsulta orduetan eta kontsultarako bakarrik.

Beraien ardura izango da, ibilgailua sartu eta irten ostean, kaleko itxitura berriz jarrita uzten (kalea itxita).

4. Zerbitzu publikoak.

4.1. Zerbitzu publikoek baimena daukate oinezkoen kaleetan sartzeko, euren egitekoa betetzeko beharrezkoa denean: Zabor bilketa, hondakinen bilketa, udaleko brigada

1.4. En las calles con cierre manual, el propio usuario será quien quite el cierre y vuelva a ponerlo después de que pase el vehículo.

1.5. En las calles con cierre automático, los vecinos de estas calles y los propietarios de los bajos tendrán acceso al mando a distancia. El reparto se hará según se recoge en el apartado «reparto de mandos».

1.6. En cualquier caso, el acceso a las calles peatonales se realizará únicamente en los casos necesarios y actuando racionalmente, para que la circulación de vehículos sea el menor posible.

1.7. Para cargas y descargas de gran volumen, si se necesita un vehículo de más de 4 toneladas de peso, se deberá pedir un permiso especial en el Ayuntamiento, como se recoge en el punto 6.

2. Comercio y otros lugares de trabajo:

2.1. Para los negocios (comercios, hostelería y demás lugares de trabajo) de las calles Salbador, Lasao, Maala y San Roke y en el acceso a Espaloia Kafe Antzokia, estará permitido el acceso en los siguientes casos:

a) Los abastecimientos ordinarios (carga y descarga).

b) El cliente se podrá acercar hasta el comercio para recoger grandes compras.

Se podrá acceder en vehiculo para recoger las compras. Mientras se esté realizando la compra los vehículos no se podrán estacionar en las calles peatonales.

De todas maneras, actuando racionalmente, el comerciante y el cliente evaluarán en qué casos se justifica acceder a la zona peatonal en vehículo.

c) Carga y descarga en los espectáculos de Espaloia Kafe Antzokia.

2.2. En las calles con cierre manual, el cliente que introduzca el vehículo para la carga de la compra será el que tenga que poner el cierre al salir.En los casos de abastecimiento el último responsable de que la calle quede cerrada será el comerciante.

2.3. En las calles con cierre automático, los titulares de los negocios tendrán acceso al mando a distancia:

a) El Ayuntamiento facilitará un mando a distancia a cada titular.

b) El titular del negocio tendrá acceso a más mandos para dejar al proveedor habitual. Esto se hará según se recoge en el apartado «reparto de mandos».

c) El titular podrá facilitar el mando a sus clientes para que procedan a recoger la compra.

2.4. Si el vehículo del proveedor habitual es de mas de 4 toneladas, se tendrá que pedir permiso especial en el Ayuntamiento.

3. Visita al médico.

3.1. Los enfermos y discapacitados tienen permiso para acceder hasta el centro medico en vehiculo. Solo en horarios de consulta y solo para consulta.

Es su responsabilidad el cierre de la calle tanto al entrar como al salir de la misma.

4. Servicios públicos.

4.1. Los servicios públicos tienen permiso para acceder a las calles peatonales para hacer su trabajo: Recogida de basura, recogida de residuos, brigada municipal.

4.2. Kasu hauetan, zerbitzuetako langileak eurak arduratuko dira oinezkoen kaleetan kontuz ibiltzen, eta itxiturak jarrita uzten (kaleak itxita).

5. Larrialdiak:

5.1. Larrialdietan, eskuzko itxitura duten kaleetan, eskuz kendu daiteke itxitura. Ibilgailua pasatutakoan, saiatu atzera itxitura jartzen, kalea itxita gera dadin.

5.2. Larrialdietan, itxitura automatizatua daukaten kaleetan.

a) Urrutiko mandoa erabili daiteke, ohi bezala.

b) Giltzapean, eta bakarrik larrialdietarako, piboteak jeisten dituen giltza egongo da pibotearen aldameneko kaxan.

c) Anbulantzia edo Ertzainek atariraino iritsi behar badute, giltza horrekin izango dute pibotea jaisteko aukera.

d) Suhiltzaileek piboteak jeisteko giltza dute.

6. Baimen bereziak:

6.1. Derrigorrez eskatu beharko da baimen berezia oinezkoen kaleetan ibilgailua sartzeko:

a) Ibilgailua lau tona baino gehiagokoa denean.

b) Ospakizun baten harian ikuskizun bat taularatzeko joan etorrietarako, ekitaldiaren arduraduna udala bera ez denean.

c) Zabalpen kanpaina publiko bat eskaintzeko ibilgailua sartu beharra dagoenean.

6.2. Baimen berezia aldiro eskatu beharko da, aste bete lehenago, udaletxean.

6.3. Baimen bereziaren eskatzaileak idatziz azaldu beharko ditu ibilgailu(ar)en pisua, eguna, ordua, lanen iraupena

6.4. Kamioia datorrenean, derrigorrez udaletxeko langile batek egon beharko du jarraitu beharreko bidea zehazten, eta berak jaitsiko du pibotea.

6.5. Honelako ibilgailuek ezin izango dute buelta hartzeko maniobrarik egin eremu adokinatuaren gainean dauden bitartean.

6.6. Baimen berezietan, udalak eskaera aztertu eta baimena ematen duen edo ez erabakiko du.

MANDOEN BANAKETA

7. Itxitura automatizatua daukaten kaleetan ibilgailua sartu ahal izateko, Udalak urrutiko mandoak banatuko ditu, irizpide hauen arabera:

7.1. Udalak doan banatuko dizkie urrutiko mando bana:

a) Kale horietan erroldatuta dauden eta ibilgailu baten jabe diren bizilagunei, ibilgailuko mando bana, ibilgailua Elgetan erregistratuta baldin badago.

b) Kale horietan etxe baten jabe direnei, bertan bizi ez badira ere.

c) Kale horietan baxu edo garaje baten jabe direnei.

d) Kale horietan dauden negozioetako titularrei (saltoki, ostalaritza, eta abar), negozioko mando bana.

7.2. Mandoa jasotzeko interesa dutenek eskatu egin beharko dute udaletxean. Mandoa jasotzen dutenekin erregistroa osatuko da. Erregistrorako aldaketa guztiak jakinarazi egin beharko zaizkio udalari (ibilgailu aldaketak, titulartasun aldaketak).

4.2. En estos casos, los trabajadores del servicio se encargarán de conducir con precaución y cerrar las calles en los casos que el cierre sea manual.

5. Urgencias:

5.1. En los casos de urgencia, en las calles con cierre manual, se podrá quitar el cierre manualmente. Después de que pase el vehículo se intentará dejar la calle cerrada.

5.2. Urgencias en las calles con cierre automático:

a) Se podrá utilizar el mando a distancia.

b) Bajo llave, y solo para urgencias, se podrá acceder a la llave que baja el pivote automáticamente. Esta estará en la caja adyacente al pivote.

c) Si la ambulancia o la Ertzaintza tuvieran que acceder hasta el portal, usarán dicha llave.

d) Los bomberos tienen la llave que baja el pivote.

6. Permisos especiales.

6.1. En los siguientes casos es obligatorio pedir permiso en el Ayuntamiento: Para acceder a las calles peatonales en vehículo:

a) Si el vehículo pesa más de 4 toneladas.

b) Para acceder a la colocación de escenario en actos festivos en los que el responsable no es el Ayuntamiento.

c) Para campañas públicas que necesiten vehículo.

6.2. El permiso se pedirá en el Ayuntamiento por cada acceso, con una semana de antelación.

6.3. En el permiso habrá que especificar: El peso del vehículo, la fecha, la hora, el horario.

6.4. Cuando venga el camión, obligatoriamente, asistirá un responsable municipal para dar indicaciones; será él el encargado de bajar el pivote.

6.5. Estos vehículos no podrán realizar maniobras mientras circulen por el adoquín.

6.6. El los permisos especiales el Ayuntamiento examinará la solicitud y decidirá si procede o no otorgar el permiso.

REPARTO DE MANDOS

7. El Ayuntamiento repartirá mandos automáticos para la entrada de vehículos en las calles con pivotes automáticos, según los siguientes criterios:

7.1. El Ayuntamiento repartirá gratis un mando a distancia a:

a) Los empadronados en esas calles y propietarios de un vehículo, que este registrado en Elgeta, un mando por vehículo.

b) Los propietarios de una vivienda en esas calles.

c) Los propietarios de bajo o garaje de esas calles.

d) Los titulares de los negocios de esas calles, un mando por negocio.

7.2. Los interesados en adquirir un mando lo tendrán que solicitar en el Ayuntamiento. Con los que reciban el mando se completará un registro. Hay que dar cuenta al Ayuntamiento de todos los cambios (cambio de vehículo, cambio de titular), para que el registro esté actualizado.

7.3. Mandoaren onuradunak udalari itzuli egin beharko dio, hurrenez hurren (7.1 ataleko dagokion kasuaren arabera):

a) Kale horietan bizitzeari utzitakoan edo ibilgailuari baja ematean.

b) Jabe izateari utzitakoan.

c) Jabe izateari utzitakoan.

d) Negozioa itxi edo titularra aldatutakoan.

7.4. Jabe edo titular berriek ere mandoa eskatu ahal izango dute, hartarako erregistroan izena emanda.

7.5. Mandoa izorratu edo galdu ezkero, zein mandoaren garantia bukatzen denetik aurrera, Udalak ez du mandorik doan emango.

8. Itxitura automatizatua daukaten kaleetan ibilgailua sartu ahal izateko, udaletxean urrutiko mandoak erosi ahal izango dituzte:

8.1. Itxitura duten kaleetako bizilagunek, irizpide hauen arabera:

a) Kale horietan erroldatuta dauden eta ibilgailu baten jabe diren bizilagunek, ibilgailuko mando bana, ibilgailua Elgetan erregistratututa ez dagoenean.

b) Kale horietan erroldatuta dauden bizilagunek, familiarteko bati uzteko (adibidez, kanpoan bizi den seme-alaba bati, bada ezpadako neurri bezala).

c) Kale horietako etxe baten jabeek, etxea alokatu dutenean, mandoak erosi ahal izango dituzte maizterrei (errentariei) uzteko.

d) Kale horietako baxu edo garaje baten jabeek, bertan gordetzen den ibilgailuko bana. Bertan gordetzen den ibilgailu bat Elgetan erregistratuta baldin badago, ibilgailu horretarako urrutiko mandoa ez zaio kobratuko.

e) Kale horietan dauden negozioetako titularrek, euren ohiko hornitzaileei uzteko.

8.2. Erositako urrutiko mando guztiak erregistroan jasoko dira: Hartzailearen izena, eta erabiltzailearena (hartutako mandoa norentzako den).

8.3. Udalak ukatu egin ahal izango du mando baten eskaera.

8.4. Mandoaren hartzailea izango da mandoaren arduraduna.

8.5. Erregistrorako aldaketa guztiak jakinarazi egin beharko zaizkio udalari (ibilgailu aldaketak, titulartasun aldaketak, mandoaren erabiltzaile aldaketak).

8.6. Mandoaren hartzaileak (arduradunak) udalari itzuli egin beharko dio, hurrenez hurren (kasuaren arabera):

a) Kale horietan bizitzeari utzitakoan edo ibilgailuari baja ematean.

b) Alokatu duen etxeko maizterrek (errentariek) etxea utzitakoan, eta etxea berriro alokatzen ez den bitartean.

c) Baxu edo garajeak: Ibilgailu bat bertan gordetzeari utzitakoan.

d) Negozioak: Mandoa utzi zaion hornitzailea aldatutakoan.

8.7. Mandoaren hartzaileak (arduradunak) galdu egiten badu, Udalak ez dio ordezko mandorik doan emango. Berria erosi beharko du.

8.8. Mandoa duplikatzeak edo Udalaren baimenik gabe erabiltzeak ondorengo isuna izango du: 30 €.

7.3. El propietario del mando deberá devolverlo al Ayuntamiento en los siguientes casos (corresponden con los casos recogidos en el apartado 7.1.):

a) Si deja de vivir en estas calles o da baja al vehiculo.

b) Si deja de ser propietario.

c) Si deja de ser propietario.

d) Por cierre de negocio o cambio de titular.

7.4. Los nuevos propietarios o titulares podrán pedir el mando; para ello deberán registrarse.

7.5. En caso de pérdida o rotura del mando se podrá pedir uno nuevo. En el caso de que el mando este fuera de garantía el Ayuntamiento no dará el mando gratis.

8. Podrán comprar el mando automático para poder acceder a las calles con pivote automático:

8.1. Los habitantes de estas calles, según los siguientes criterios:

a) Los que estén empadronados en estas calles y sean propietarios de vehículo, en el caso de que el vehículo no esté registrado en Elgeta.

b) Los que estén empadronados en estas calles, para que un familiar pueda acceder (por ejemplo en el caso de que los hijos-hijas vivan fuera).

c) Los propietarios de una vivienda en estas calles, cuando tengan la vivienda en alquiler, para que el inquilino pueda acceder.

d) Los propietarios de los bajos o garajes de estas calles, por cada vehículo que se guarde en estos. Si el vehículo está registrado en Elgeta no se le cobrará el mando.

e) Los titulares de los negocios, para poder dejárselo a sus proveedores.

8.2. Todos los mandos que se compren se recogerán en el registro: El nombre del receptor y el del usuario (para quién es el mando).

8.3. El Ayuntamiento podrá denegar la solicitud del mando.

8.4. El receptor del mando será el responsable del mismo.

8.5. Se notificarán al Ayuntamiento todos los cambios para el registro (cambios de vehículo, cambios de titular, cambios de usuario).

8.6. El receptor del mando (el responsable) tendrá que devolver el mando al Ayuntamiento en los siguientes casos:

a) Cuando deje de vivir en esa calle o de baja al vehículo.

b) Cuando el arrendatario deje la casa y mientras no se alquile la vivienda.

c) Bajos y garajes: Cuando se deje de guardar el vehículo en los mismos.

d) Negocios: Cuando se cambie de proveedor.

8.7. El receptor del mando (responsable) pierda el mando, el Ayuntamiento no le facilitará uno nuevo, lo deberá de comprar.

8.8. Duplicar copia del mando ó usar sin permiso del Ayuntamiento se sancionará con 30 €.